



Feministaldia plaza hartzera dator abenduaren 12tik 18ra

Astelehenean hasita, igandera arteko egitarau oparoa antolatu du Plazandreok-ek, Donostia 2016 eta Tabakaleraren kolaborazioarekin.

#Plaza lelopean, hitzaldi, mahai inguru, filme emanaldi, dj eta kontzertuek osatuko dute kultura feministaren XI. edizio hau.

Feministaldiaren XI. edizioa aurkeztu du gaur Plazandreok Emakumeen Plataforma Politikoak, Donostia 2016ren eta Tabakaleraren kolaborazioarekin eta Emakunde eta Gipuzkoako Foru Aldundia laguntzaile dituela.

Aste osoko egitarau zabala antolatu dute abenduaren 12tik 18ra bitartean ospatuko den Donostiako Kultura Feministaren Jaialdian. Gerturatutakoek, hitzaldi, mahai inguru, filme emanaldi, dj eta kontzertuek gozatzeke aukera izango dute besteak beste. Azken hamarkadan egin bezala, kultura eta politika garaikidearen adierazpen hauek guztiak ikuspegi feminista batetik lantzea izango dute helburu.

Besteak beste, aipatzekoak dira ekonomia feminista ardatz izango duen mahai ingurua, Silvia Federici eta Amaia P. Orozcoren eskutik; Estatugintza Feministaren inguruko hitzaldiak Jule Goikoetxea eta Onintza Enbeitak emanak edota Christina Rosenvingeren hitzaldi zein kontzertua.

Aurten, #plaza hartzea helburu

Aurtengo leloa #plaza izango da. Antolatzaileek azpimarratu gisan, historikoki emakume zein beste gorputz disidenteei ukatutako gunea izan delako, eta Feministaldiaren oinarrizko helburuetako bat hori berreskuratzea izan delako. Plaza ulertu baitute, “agentzia eta ahalmen leku gisa, eraldaketarako eta aukeraz betetako leku gisa, bertara salto egiteko, hitza hartzeko, egunez zein gauzez hartzeko leku gisa, plaza segurua, plaza politikoa”.

Plaza hori hartzen jarraitzeko asmoz antolatu da aurtengo egitaraua. Astelehenetik igandera bitartean luzatuko da jaialdia eta ekitaldiak Tabakaleran eta Guardetxean egingo dira. Egitaraua Feministaldiaren (feministaldia.org) eta Donostia 2016ren (dss206.eu) web orrialdeetan egongo da ikusgai.

***Elkarrizketetarako kontaktua: kattalin.miner@gmail.com**



Abenduak 12 eta 13

17:00-20:00, Tailerra (3. solairua)

Estrategia Feministak Hezkuntzan II

Gazteak, aniztasuna eta harremanak

Estrategia feministak hezkuntzan aurreko tailerrean detektatutako beharretatik abiatuta eta Feministaldiarekin bat eginez, nerabezaroaz arituko gara. Jendartea antolatzen duten harreman eredu hegemonikoen eraginez sortzen diren mugak, gatazkak eta desorekak aztertuko ditugu, eta gazteekin batera harremanak birpentsatzeko dinamikak eta proiektuak ezagutzeko aukera izango dugu. Besteen artean, aniztasun afektibo sexuala bermatzeko babesguneak, bullying-ari aurre egiteko estrategiak edota indarkeria matxistari aurre hartzeko esperientziak.

Abenduak 12

Feminismoen eta tratu onen onurak irakasleentzat

Eduarne Epelde Pagola eta Eduarne Mendizabal – Arremanitz kooperatiba

Jendartean eta hezkuntza eremuan feminismoen eta tratu onen gaia lantzean askotan erresistentziak topatzen ditugu. Erresistentziak identifikatu eta aurre hartzeko baliabideak elkar-trukatuko ditugu lantegian. Gorputzetik eta mugimendutik abiatuta, feminismoek eta tratu onen eskaintzen dizkiguten onurak gure azalean biziko ditugu.

Abenduak 13

Armairua... berokiak gordetzeko! LGTBIfobiaren prebentzioa nerabezaroan

Miriam Aleman Calatayud - Candela elkartea

Saio honetan, LGTBI gazteentzako ingurune positiboa sortzeko eta genero eta sexu aniztasuna txertatzeko beharrezkoak diren gakoak landuko dira. Honekin batera, LGTBIbofiko den eskola jazarpenari buruz hitz egingo da, elkarrekin izan dituen esperientzietatik abiatuta, bullying-aren kontrako proiektuak partekatuko dira.

25 pertsonentzat lekua. Izena emateko 943 011 311 telefono edo www.tabakalera.eu webgunean.



Abenduaren 14

18:30, Z aretoa

Ekonomia Feminista: mahai-ingurua

Globalizazioa, herri-ondasunen suntsipena eta emakumeen kontrako indarkeria

Silvia Federici

EN (ES)

Iraultza feministarako espazio ekonomikoak?

Amaia Pérez Orozco

ES

21:30, Kutxa Kluba

Plácida Ye-Yé Dj

Abenduaren 15

18:30, Z aretoa

Estatugintza feminista: mahai-ingurua

Estatu Feminista: Estatu-fobia liberala feminismo erradikalean

Jule Goikoetxea

EU (ES)

Politikotik pertsonalera

Onintza Enbeita

EU (ES)

20:30, Z aretoa

Kancaneo Teatro "Pa ti pa mi", Inprobisazioa



Abenduaren 16

18:30, Z aretoa

Hitzaldia

Desira normatiboak eta bestelako desirak Euskal Herrian. Adibideak 1950tik hona

Ibai Atutxa

EU (ES)

20:00, Zinema 1 aretoa

Ikusentzunezkoa

Gelen Jeleton-en bideo aukeraketa: Una Archiva del DIY (registros)

Muestra Mostra: archivo mutante de zines hechos por trans, lesbianas y mujeres, 2016, 30'

Fanzinera desberdinek webcam bidez grabatutako elkarrizketetatik abiatutako doku-kollage bat da, Kordoba, Argentinan 2016an ospatutako "Muestra Mostra" jaialdirako ekoiztua.

"Cara de bicicleta"-k zuzendua (Ele Nah eta Lali fanzinea)

Kartela Alba Feito-k egina.

Leelatu#1, 2014, 13'15"

Leelatu#2, 2015, 7'54"

ES

Xede eskutitz gisa aurkeztutako bi film labur eta "Mujeres en espiral: sistema de justicia, perspectiva de género y pedagogías en resistencia" proiektuaren testuinguruan, CEFERESO Santa Martha Acatitlako emakume presoekin eta UNAMeko ikasle zein akademikoekin egindako "Leelatu#1" (2014) eta "Leelatu#2: trabajo" (2015) fanzineen manifestua.



Abenduaren 17

12:00, Z aretoa

Hitzaldia

Esaldien kutsadura

Mertxe Tranche

ES

13:00, Z aretoa

Hitzaldia

Emakumeek barre eginarazten dutenean

Isabel Franc

ES

18:00, Z aretoa

Ikusentzuzkoa eta zuzendariarekin solasaldia

Irrintziaren oihartzunak. Zine erbestealdiak

Iratxe Fresneda, 2016, 54'

UPV/EHU-ko Berdintasunerako Zuzendaritzarekin elkarlanean antolatuta

19:30, Z aretoa

Mahai-ingurua: Christina Rosenvinge-rekin *backstage* feminista

Fanzine Bulbasaur eta Christina Rosenvinge elkarrizketan



ES

22:00 Guardetxea

Festa

Christina Roseninge

DJ Miao

DJ gurebesta

Abenduaren 18

19:00, Zinema 1 aretoa

Salut les Cubains, Agnès Varda, 1962, 28'

Ella, Theodor Christensen, 1964, 35'

Iré a Santiago, Sara Gómez, 1964, 15'

Y tenemos sabor, Sara Gómez, 1967, 30'

10. saioa: *Emakumeak, Ezinzezko zinema baten alde, dokumentala eta abangoardia Kuban (1959-1972)* zikloaren barruan, Tabakalerako ikusentzun arloak antolatuta Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía eta Kubako Zinetekarekin elkarlanean.

Agnès Vardaren *Salut les cubains* film subjektibo bat da, zinegileak 1962-1963ko egonaldian atera zituen milaka argazkiren artean aukeratutakoek osatua, kubatar musika eta iruzkin laburrak konbinatzen dituena. Zinegileak berak «sozialismo eta txa-txa-txa» gisa definitu zuen filma. *Ella*, Theodor Christensen daniar zinegile beterranoak egina, Iraultzaren garaiko emakumearen egoerari buruz ICAICek ekoiztiko lehenengo filma da.



Sara Gómez, intelektual beltzen ordezkari gailenetako batek kubatar zinean aztarna utzi zuen lehenengo emakume zinegilea da. *Iré a Santiago*, aldiz, *free cinema* estiloko bidaia da, «mulato izatea gogo aldartea den» leku bati buruzkoa. *Y tenemos sabor* filmak Kubako musikan erabilitako perkusio instrumentuen sorta exotikoaz eta horien jatorriaz dihardu: klabeak, koilarak, marakak, bongoak, guiroak (kuiz egindakoak), zintzarriak, zaldi masailezurak. Gómez musikaria zen prestakuntzaz eta haren muntaketa sinkopatuak musikaren erritmo gurutzatua jasotzen du, kontrapuntu gisa erabiltzen duela. Info web: <https://www.tabakalera.eu/es/sesion-10-mujeres>